


Aretxagazeta

Internet: www.saretxo.es/aretxagazeta
e-mail: aretxagazeta@saretxo.es

Aretxabaleta • 1999ko maiatzak 13 • 167. zka.

Pertsona fisikoaren errentaren
gaineko zerga
Aitorpen Mekanizatua
1998

FELIS BELTRAN DE HEREDIA
ANDRA MARI 07 - 2 EZK
ARETXABAleta

 Gipuzkoako Foru Aldundia Diputación Foral de Guipúzcoa Ogasun eta Finantza Departamentua Departamento de Hacienda y Finanzas	PERTSONA FISIKOEN ERRENTAREN GAINEKO ZERGA 1998	109	
		Likidazio zk.	
SUJETO PASIBOA / Sujeto pasivo (ar baitu gehiago elagoenak, jarri zerrenda osoan barnekaldeko 1. orrian)			
NA	Lehenengo deitura	Bigarren deitura	Iena
FAMILIAREN MOTA	Famili unitatekoa ez den sujeta pasiboa <input type="checkbox"/>		
	Famili unitatearen tributazioa		
	Batera <input type="checkbox"/> Banaka <input type="checkbox"/>		
ZERBALTIA	Urte naturalaren pareko zergaldia:		
	Urte naturala baino laburrago den zergaldia:		
BETETAKO ORR			
1. orria: Aitorpena			
2. orria: Aitorpena			
3. orria: Aitorpena			
4. orria: Aitorpena			
1. eranskina: Zerga, indar eta modulu hutsak			
2. eranskina: Zerga, indar eta modulu hutsak			
3. eranskina: Zerga, indar eta modulu hutsak			
4. eranskina: Zerga, indar eta modulu hutsak			
5. eranskina: Zerga, indar eta modulu hutsak			
6. eranskina: Zerga, indar eta modulu hutsak			
7. eranskina: Zerga, indar eta modulu hutsak			
8. eranskina: Zerga, indar eta modulu hutsak			
9. eranskina: Zerga, indar eta modulu hutsak			
10. eranskina: Zerga, indar eta modulu hutsak			

Dontsuzko errenta aitorpena

Ordaintzea ala kobratzea?

Euskal Eskola Publikoa Eraikitzen

Zure etorkizuna eraikitzen



Batxilergo guztiak

- Natur eta Osasun-Zientzien Batxilergoa
- Giza eta Gizarte-Zientzien Batxilergoa
- Teknologiko Batxilergoa

Bide irekiak

- Ikasle bakoitzari egokitutako Bideak

Hizkuntzak

Eskaintza zabala:

- Ingelesa
- Alemaniera
- Frantsesa
- Italiara

Modalitate eta Aukerako ikasgaietan oso eskaintza zabala

- Elektroteknia
- Ordenagailu bidezko marrazketa eta diseinua
- Mekanika
- Ekonomia eta enpresa antolaketa
- Iharduera fisiko, aisialdi eta osasuna
- Laborategi teknikak
- Psikologia
- Antropologia

Erdi Mailako Zikloak

- Ibilgailuen elektromekanika
- Erizaintzako zaintza osagarriak
- Soldadura eta galdaragintza
- Kontsumorako ekipo elektronikoak (Baimenaren zain)

Goi Mailako Heziketa Zikloak

- Galdaketa eta pulbimetalurgia bidezko produkzioa (Baimenaren zain)

Aurre-inskripzioa

Ekainaren 1etik 9ra

Matrikula


Uztailaren 1etik 9ra



BERRI GEHIAGORAKO



ARRASATE: 943 79 83 00 / 79 44 47
ARETXABALETA: 943 79 79 00 / 79 79 43

 **arrasate**
aretxabaleta
INSTITUTUA



Gaztetxea, zertarako erabili beharko litzateke?

Andoni Antxia

(Jubilatua)

Gazteentzat behar-beharrezkoa dela uste dut. Gazteetxeek beti fama txarra izan dutenez, horri buelta eman beharra dagoela iruditzen zait. Horretarako, kultura eta herriko arazoetan gehiago parte hartu beharko lukete bertakoek.



Ane Zabalo

(Ikaslea)

Ondo iruditzen zait kontzertuak egiteko erabiltzea, baita taberna egotea ere. Ikastaroak antolatzea beste aukera bat da.

Normalean ez naiz joaten bertara.



Ana Bragado

(Ikaslea eta langilea)

Aretxabaletako gaztetxera 15 urte inguruko gaztetxoak besterik ez dira joaten eta oso zaila da kanpokoak sartzea, talde itxia osatzen dutelako.

Beste era bateko ekintzak egin beharko lirateke kontzertuak, pelikulak bota, erakusketak... bertako giroa aldatu beharra dago.



Asier Manuel

(Ikaslea)

Okupatutako etxea izan beharko litzatekeela uste dut, baita gazteek beraien ekintzak aurrera eramateko lekua ere. Bertan, kontzertuak eta ikastaroak egon beharko lirateke.

Ni ez naiz joaten hemengo gaztetxera, ez zait gustatzen bertako giroa.



eskutitza



Bide gorria edo pasealekua

Pasa den igandean, bide berdeen eguna egin zen, antzinako trenbideak bide ekologikoetan bihurtzeko eguna hain zuzen. Hemengo udalerriek ere, orain urte batzuk, trenbide zaharrak bide gorrian bihurtzeko proiektuak egin zituzten, horrela bizikleta zaleek beste bide batzuk izan zituzten ibiltzeko.

Aretxabaletan, proiektu hau aurrera eramateko orduan arazo bat sortu zen, antzinako trenbide hau Kurtzebarri eskolatik Azbe lantegiraino jadanik desagertuta zegoelako. Hala eta guztiz, ahalegintxo bat egin, eta, Errotetxetik Kurtzebarriraino eta Azbetik Copreciraino gorri asfaltatu zen bide gorri itxura emanaz.

Trenbideko paseoa, ordea, ez dute oztopatzen ez Kurtzebarri eskolak, ez frontoiak, ezta bertan dauden etxebizitzek ere. Onartezina dena, Industrialde parean, oinezkoak,

trenbidetik errepidera atera beharra izatea da. Egunero-egunero kamioiek trenbide gainean aparkatzen dute, baita han dagoen kotxeak konpontzeko garajeko bezeroek ere, mekanikoaren azalpenak bertan jasoz.

Ohikoa denez, inor ez da arduratuko arazo honetaz ezbehar bat gertatu arte. Kotxeak bi lerrotan aparkatuta, kamioiak trenbide gainean, bai kotxe eta bai kamioiak oso abiadura handira... eta paseatuz lasaitasun bila gabiltzanok errepidera atera behar gara trenbidean aurrera joan ahal izateko.

Ertzain edo Udaltzainek bertatik bueltaxo bat eman beharko lukete eta trenbidea, gure pasealekua, libre uztera gonbidatu kamioi eta kotxe jabeak.

P.B.H.
18.591.178



Gipuzkoako
Foru Aldundiak
diruz lagundutako
aldizkaria



Kultura sailak
diruz lagundutako
aldizkaria



Aretxabaletako
Udalak diruz
lagundutako
aldizkaria

Aretxagazeta aldizkaria. **Argitaratzailea:** Aretxabaletako komunikabideak-Loramendi elkarte. Durana 11, 151 postakutxaila Aretxabaleta. Tfnoa: 943-79 86 21 Faxa: 943 77 18 54. **Erredakzio-kontseilua:** Gurutze Larrinaga, Koldo Zubizarreta, Aitor Irure, Gotzone Arrese, Gorka Etxabe, Arantza Antxia, Bego Arenaza, Arrate Arkauz, Aintzane Lasa, Pello Zubizarreta. **Erredakzio arduraduna eta publizitate arduraduna:** Mirari Altube eta Iratxe Bengoa **Kolaboratzaileak:** Mikel Arroiabe, M.J. Aretxaga, Andoni Arana, Joseba Lopez de Armentia, Inma Miguel, Amaia Berebizu, Aitor Antxia, Iñaki Urreta, Loramendi E. E., Udala, Euskaltegia. **Banatzailea:** Jeanette Bragado. **Inprimategia:** Eguzkigraf, Koop. Elk. **Tirada:** 2.500 ale. Aretxagazeta paper ekologikoan egiten da. **Lege gordailua:** SS378 / 94. ISSN: 1134-2609. **Internet:** www.saretxo.es/aretxagazeta **e-mail:** aretxagazeta@saretxo.es. Aretxagazeta aldizkaria ez da kargu egiten aldizkarian adierazitako esanekin eta iritziekin.



Aretxagazeta



Goi tentsioko kablea jarriko da herriko lurretan

Ederlaneko argi-ingar beharrak asetu nahi ditu eta Oroko lurretatik pasatuko da

Oraindik hilabete batzuk pasatuko dira baina laster jarriko da goi tentsioko kablea Aretxabaletako lurretan. Kable honek Ederlan lantegiaren argi-ingar beharrak asetu nahi ditu, kontsumo handiko garaian, momentu honetan dagoena ez baita nahikoa.

Lurren jabeen haserrea

Arrasatetik etorri, eta, kanposantzu eta Elizgarai baserri bitartetik, Urzelai baserri gainera joango da. Ondoren Agarre eta Leizabal baserri artetik, Bainuetxera, azkenean Ederlanera heltzeko. Kablea pasatu-

ko den lurren jabeekin arazoak izan direla onartu du Udalak. Hasieran, Iberdrolak, proiektuaren zirriborro bat prestatu zuen baina Oroko auzokideak ez ziren ados agertu. Azkenean, Iberdrola, Udala eta auzokideak bildu eta proposamen guztiak aztertu ondoren, adostasun batera heldu ziren. Hala eta guztiz, baserri batzuetatik oso hurbil pasatzea nahitaezkoa izango da eta horrek baserritar batzuen haserrea sortarazi du.

Eragin handia begi bistara

Jesus Kortabarriaren esanetan,

begi bistara eragin handia izan dezake, kable-zutabeak, oso garaiak direlako; leku batzuetan, 200 m.ko altuera hartuaz. Lur azpitik sartzeak, ordea, kostua asko igotzen du, eta teknikariaren esanetan, gerora begira, gainera, arriskutsua izan daiteke.

Nahiz eta proiektua onartuta egon, momentuz, ez da lanen hasieraren datarik ezagutzen. Proiektua gizartearen intereseko egin nahi dute, lurren jabeekin akordioz izan ezean, lurren jabetza kentzeko horiei. Honek, ordea, hilabete pare bat luzatuko du lanen hasiera.



Giza katea Euskal Presoen alde

Pasa den ostiralean, hilak 7, Euskal Presoak Euskal Herrira ekarteko kanpainaren barruan, konpromiso eguna antolatu zen Euskal Herrian. Hori dela eta, Aretxabaletako hainbat alderdi politikok eta Euskal Presoak Euskal Herriratzeko plataformak deituta, giza katea egin zen Herriko plazan. Ordu erdi inguruz, 250 herritar bildu ziren plazaren bueltan isiltasun osoan. Euskal Presoak Euskal Herriratzeko aitzakiak, alderdi eta ideia ezberdinetako jendea elkarri eskutik helduta ikusteko aukera eman zuen.

ERRENTA AITORPENA 98

Informatu. Aukerak aztertu.

Dena profesionalen esku.


Denboraz eta paper barik.



Zenbaki


Basabe Industrialdea, C Pab. • ARETXABALETA • Tel.: 943 71 21 12 • Faxa: 943 71 22 68

Aldez aurretik deitu!



TELEMATIKA:

aitorpen arrunta kobratzeko modurik azkarrena





Hiruatxen proiektua: Condegako berriak

Mitch hurakanak sortutako kalteen
berreraikitze lanetan ari dira

Hirugarren munduko herrialdeei laguntzeko sortutako Aretxabaleako Hiruatx elkarteak, bere azken proiektuaren berriak bidali dizkie oraintsu bazkideei. Berri horiek, ordea, interesa sor dezaketela ikusita, herritar guztiei zabaldu nahi dizkie.

Herrian batutako dirua

Hiruatxek eskuartean darabilen proiektua, Nikaraguako Condega herrian kokatuta dago. Proiektua aurretik hasia bazuten ere, pasa den udazkenean, Mitch hurakanak deseginda utzi zuen herrialdea. Hori dela eta, berreraikitze lanak bultzatzeko diru bilketa egin zen herrian.

- Herritarren eta Udalaren diru laguntza 4.400.000 pta.
- Euskadiko Kutxaren diru laguntza 2.500.000 pta.
- Copreciren diru laguntza (langileak eta enpresa) 1.700.000 pta.
- Guztira 8.600.000 pta.

Etxebizitzaren berreraikuntza

Orain, APCK, Hiruatxen kooperazioa gestionatzen duen Condegako herri elkarteak, diru horrekin egindakoaren berri eman

du. Interes eta indar guztia, etxebizitzaren berreraikuntzan jarri dute, hori izan delako Mitch hurakanaren ondorioz sortutako arazorik larriena. APCK, San Jose de Pire nekazal komunitateko etxeen berreraikitze hartu zuen bere gain. Bertan, 9 etxebizitza berri egiten eta jausitako beste 7 etxetan ere lanean dihardute. Etxebizitza berriek, 36 m²ko azalera dute eta bakoitzaren aurrekontua 310.000 pta.koa da. 9 etxebizitza berriak ekainerako bukatzea espero dute eta ondoren 7 etxeen berreraikuntza lanei ekingo diete.

Etxebizitzetan izugarritzko kalteak egiteaz gain, hurakanak Condegako herritarrentzat garrantzitsuak diren beste zenbait alderdi ere astindu ditu: uzten galera, desbideratutako errekek direla eta jasaten ari diren ur galerak, aldaketa ekologikoak eta ingurugiroarenak... Hemendik bidalitako laguntzarekin arazo hauek gozaten saiatuko dira.

Jasotako diruagatik herritarrei eskerrak emateaz batera, Hiruatxek Mitch hurakana etorri aurretik hasitako Condega proiektuaren finantziaketa ez dela bukatu gogorarazi nahi du (4.000.000 pta.), 1.000.000 pta. behar dira.

Jaunartzeak

Maiatzarekin batera jaunartze garaia heldu da. Aurten bi egunetan egingo dira, 9an eta 16an. Pasa den igandean 14 haur izan ziren eta hurrengoan 16 izango dira, beraz, guztira 30 neska-mutikok egingo dute jaunartzea aurten. Haur guztiek kristau heziketa euskaraz jaso badute ere, guraso eta familiakoei begira elizkizunetan gaztelera sartzea erabaki zen. Antonio Astigarraga parrokoaren esanetan, zaila izaten da guraso guztiak ados egotea elizkizuna egiteko erarekin baina azken batean elizak zehaztu behar du hori eta ez gurasoek. Ea hurrengo igandean egin behar dutenei ere eguraldiak laguntzen dien.

Zaraia zinemaren egoera aztergai

Urte bete inguru pasatu da eta Aretxabaletan oraindik ez dago zinerik. Ez bakarrik zinea, Zaraia zinema ez dago inolako ekintzarik egiteko moduan. Hori dela eta, orain hilabete batzuk, herriko hainbat talde eta elkarteri euren iritzia eskatu zien Udalak, zein aldaketa egin erabakitzeko. Momentuz, ez dago ezer erabakita eta Udalaren hurrengo pausua "ideien lehiaketa" egitea izango da. Lehiaketa hori arkitekuei zuzenduko zaie eta oraindik ez da zehaztu proiektua zinema konpontzeko bakarrik izango den edo eraikuntza osoaren berrikuntzarako. Erabaki honetan aurrekontuak ere izango du zeresanik.



LASAGABASTER-en

AUKERARIK ONENA

Zerkaosteta, 1 eta 2 • ARRASATE TFNOAK.: 943 79 27 27 / 943 79 13 55

Lehenengo ataleko kolektore lanak bukatuta daude

Iazko urrian hasi ziren kolektore lanak herrian eta luze joan badira ere, lehenengo ataleko lanak bukatuta daudela esan daiteke. ACS enpresa ibili da lan horretan eta bi hilabete inguruko atzerapena izan dute. Lanok guztiz bukatzeko, kalea, Anduaga tabernatik bariante-rainoko tartea, asfaltatzea falta zen, ez bakarrik asfaltatu baita txukuntzea ere, leku askotan zuloak eta behera egindako azerak geratu ziren eta. Asfaltoa asteartean bota zen eta asteazkenerako Araba Ibilbidea zabaldua zegoen.

Bigarren ataleko lanak aurrera

Altuna eta Uria enpresa ari da bigarren ataleko lanok egiten eta

Olaia Etxenautia, udaletxe-ko hirigintzako teknikariaren esanetan martxa onean doaz. Arbi Zelai parekoak bukatu dira eta orain Bedarreta auzo inguruan dabil-tza. Ondoren, Murubide, Otalora eta Errekabarren kaleko zati bat egin behar-ko dira guztiz bukatzeko.

Olaia enpresaren esanetan Otalora kalea izango da arazo haundienak emango di-tuena, kotxe ugari pasatzen delako bertatik. Beraz, oraindik buruhauste batzuk jasatea tokatuko zaie herritarrei. Ezuste ugari suerta daitezke lan hauetan, dena dela urria baino lehen bukatzea oso zaila



Luze joan badira ere bukatu dituzte lehenengo ataleko lanak

izango dela diote hirigintza sailetik.

Bi enpresa hauek, kaleak lehen zeuden bezala uzteko konpromisoa hartu bazuten ere, ikusteko dago horrela izango den edo udalak kon-pondu beharko dituen azkenean.

Aurkeztu dira datorren udal hauteskundeetarako hautagaiak

Astelehenean bukatu zen ekainaren 13ko hauteskundeetarako hautagaiak aurkezteko epea

EA/EAJ koalizioa

1. Karmelo Azkoitia Galdos
2. Jose Mari Armentia Makazaga
3. Jose Antonio Zubizarreta Herrasti
4. Pablo Txintxurreta Etxeberria
5. Iñaki Uribebarria Arabaola
6. Agurtzane Elkoro Arkauz
7. Mikel Uribebarria Barrena
8. Clemente Domingo Malvadi
9. Jesus M^a Herrasti Erlorri
10. Edorta Mendieta Arregi
11. Isidoro Garciaetxabe Perez
12. Elena Vazquez Alvarez
13. Eduardo Altube Aramburuzabala

Ordezkoak

1. Iñaki Altuna Agirrebeña
2. Adoratzin Herrasti Erlorri
3. Miren Lore Martinez Axpe

EH-Euskal Herritarrok

1. Anjel Bergaretxe Agirregabiria
2. Sokorro Unanue Aretxaga
3. Jabier Etxebarrieta Lopez
4. Andoni Miguel Quintero
5. Josu Atxaga Irizar
6. Luis Errasti Enekotegi
7. M^a Lourdes Etxebarria Azkarretazabal
8. Josu Sarasua Maritxalar
9. Pablo Oianguren Zendoia
10. M^a Asun Gutierrez Mendizabal
11. Ignacio Romaratezabala Faido
12. Arantzazu Fdez. de Arroiabe Idigoras
13. Felix Iriarte Cillaurren

Ordezkoak

1. Larraitz Arando Ilarduia
2. Aitor Bengoa Bengoa
3. Mikel Uribebarria Aldalur

IU-Ezker Batua

1. Jaime Mugica Elorza
2. José Luis Gómez Villanueva
3. Agustín Valor Caballero
4. Juan Alcaide Jiménez
5. Jesús Del Fresno Jiménez
6. María Tena Masedo
7. Antonio Alcaide Jiménez
8. María Concepción Romano Castro
9. José Olivenza Mendez
10. José M^a Feo García
11. Rafael Martín Camin
12. Aniceto Morales Murillo
13. Inmaculada Rodríguez Jurado

Ordezkoak

1. Roberto Martín Casarejos
2. Ramón Fernández Benito
3. Nieves García López

PSE-EE

1. Iñaki Pierrugues Barberan
2. Lorenzo Fernández Caballero
3. Laura Basarte Telleria
4. Enrique Corcuera Leunda
5. Emilio Pérez Saez
6. Salvador García Palacios
7. Victoria López Tobes
8. Enrique Errasti Larrauri
9. M^a Francisca Guenaga Arregui
10. Andrés Unanue Bari
11. M^a Vicenta Echeverría Aguirre
12. Fernando Cruz Montes
13. Jesús M^a Eguiguren Imaz

Ordezkoak

1. Juan Bautista Lete Amantegui
2. Fernando Serrano García
3. Piedad Muniozguren Muguruza

PP-Partido Popularra

1. M^a Rosario Arrue Bergareche
2. José Avilés Tome
3. Alfonso Serrano Sánchez-Capuchino
4. Josefa Robles Padilla
5. Francisco Ubed García-Cuenca
6. Eduardo Oria De Rueda Elorriaga
7. Mónica Rodríguez García
8. Diego Sanjuanbenito Bonal
9. Felipe Carballo Amaro
10. Matía Huelves Manzano
11. Noemí Sánchez Escudra
12. Silvia Yáñez Cabrejas
13. Alfredo Prada Presa

Ordezkoak

1. M^a Dolores Delgado Otero
2. Eusebio Benito Fernández
3. Luisa Ondarza Santiago

ESKORIATZA

Tfno 714345

ERRETEGIA

Bazkariak eta afariak

MENDIOLA

Astelehenetan itxita

ESKORIATZA

EXPRESS

AKEITEGIA

Santa Kurtz, 16

Tfnoa: 943 79 23 43

Okindegia - Gozotegia

Aretxabaleta

Loramendi, 6 - ☎ 943 77 17 19

Mitarte, 1 - ☎ 943 77 00 81

Aretxabaleta

Bertako okina

Arrasateko HIES Ekimenak antolatutako komiki lehiaketan, atxabaltarrak sarituen artean

Ostiralean, hilak 7, izan zen pasa den abenduan, Arrasateko HIES Ekimena taldeak antolatutako komiki lehiaketaren sari banaketa. Jende ugari bildu zen Arrasateko udaletxean egindako ekitaldi honetan.

Deialdia bailarako eskola eta ikastola guztietara egin bazen ere hiru besterik ez ziren aurkeztu, Arrasateko bi eta Aretxabaletako Kurtzebarri eskola. Guztira 55 lan izan dira aurkeztutakoak.

Aukeraketa oso zaila

Epai lanetan hiru lagun ibili ziren: Hibai Garai komikigile oñatiarra, marrazkien kalitatea baloratzen, Asun Agiriano, Arrasateko haur liburutegiko arduraduna, idazmena baloratzen eta Myriam Beltran de Heredia Aretxabaleta eta Eskoriatzako drogomenpekotasun teknikaria, gaiari eman-

dako trataera aztertzen. Myriamen esanetan zaila izan zen aukeraketa hiru gauzak eduki nahi zirelako kontuan. Sarituak hauek izan ziren: 15 urtetik beherakoen artean, Kurtzebarri eskolako Amaia San Vicente eta Maitane Garai, "88ko mitina" komikiarekin. 15-18 urte bitartekoen artean Haritz Iñurritegi, "Asegurate" lanarekin. 19 urtetik gorako mailan ez zen saririk eman.

Soo! Bitxo komikiaren aurkezpena

Ekitaldi honetan *Soo! Bitxo* komikiaren aurkezpena ere egin zen. "Tunantes del Norte" antzerki taldeak egindako antzezlan hau, orain komiki erara moldatu du Hibai Garaik. HIES Ekimenakoek, jendearengana hurbiltzeko beste modu bat dela pentsatu eta leku eta giro ezberdinetan banatu nahi dute esandako komikia.



Domi Korta, Hies Ekimenako arduradunak eta Jon Anduezak eman zien saria Kurtzebarri eskolako Maitane eta Amaiari

Botoa posta bidez

Hurrengo ekainaren 13ko hauteskundeetan botoa ematera joaterik ez duenak, aurretik postaz emateko aukera izango du. Eskabidea, norberak egin beharrekoa da eta inprimaki bat bete eta dagokion hautesle-errodaren bulegoko ordezkartzara bidali behar da, erroldan dagoen egiaztagiria eskatzeko. Eskabide hau, beteta eta izenpetuta posta zerbitzuko edozein bulegotan aurkez daiteke. Han NAN eskatu eta sinadurak bat datozela egiaztatuko dute. Hautesle errolda bulegoko lurralde ordezkartzak, maiatzaren 24tik aurrera, botoa postaz emateko behar diren agiri guztiak bidaliko ditu. Eskabidea, hauteskunde deialdia egiten den egunetik hasi eta ekainaren 3a baino lehen aurkez daiteke. Dena dela, botoa postaz emateko asmoa dutenei lehenbailehen egin dezatela eskabidea gomendatzen zaie.

Erreka ondoko pasealekua

Loramendi kaleko errekaldeko pasealekua, hilabete batzuk barru berritu egingo da. Momentuz, hodiak sartzen ari dira eta lanak bukatzeko eperik ez da ezagutzen. Ondoren, berriz, ingurua txukundu eta berrizteko asmoa dago eta pasealeku polita geratuko da erreka kontran. Azkenengo obrak aprobetxatuz, herrian gero eta pasealeku gehiago egin direla aipatu behar da.



**Lurrindegia
Opari-denda**

Mitarte, 18 ☎ 79 38 59

Martín
RELOJERIA • BITXITEGIA

Bere bezeroen zerbitzura

Mitarte, 16
Tfnoa: 943 79 01 72

DOIKALSE
Elektroerosio
lanak

Basabe Poligonoa C-1-1
Aretxabaleta
Tfno: 943 79 82 44

G U R E A

*taberna
jatetxea*

Durana kalea
Tfnoa: 943 79 20 64

Euskararen eguna eta Ojala Zelaiko erromeria

Herriko hiru elkarte arduratuko dira Euskararen eguneko bazkaria prestatzeaz

Maiatzaren erdi aldera ospatu ohi diren erro-meri giroko jai horiek gure artean ditugu. Loramendi Euskara Elkarte eta Kultura saila buru belarri lanean ibili ostean, herritar guztien gustua asetzeari espero dute aurtengo egitarauarekin.



Maiatzaren 15a, zapatua: EUSKARAREN EGUNA

Goizeko 11,30etan: ARETXABALETAKO HERRI MAILAKO ESKU PILOTA TXAPELKETAKO FINALA Iturrigorri Frontoian:

11,30etan- 3. eta 4. posturako partida.

12etan- Final nagusia.

Eguerdiko 12etan: KANPAI JOTZEA.

Eguerdiko 12,15etan: GINKANA Mitarte kalean, Ortazarrek antolatuta.

Eguerdiko 12,30etan: TXALAPARTARIAK Durana kalean.

Eguerdiko 12,30etan: GAZTAI ETA SAGARDO DASTAKETA Durana kalean.

Eguerdiko ordu 1etan: LEIZARRA MUSIKA ESKOLAKO TRIKITILARIEK herriko kaleak alaituko dituzte.

Eguerdiko ordu 2,30etan: BAZKARI HERRIKOIA Durana kalean. Muru-Alde, Uratz-Alde eta Urbaltz elkarteek baba goxo-goxoak prestatuko dituzte. (Txartelak Arlutz tabernan)

Arratsaldeko 4,30etan: ALDIBEREKO XAKE PARTIDAK. Arlutz Xake Taldeak eta Ezkutu tabernak antolatuta.

Arratsaldeko 5etatik aurrera: MUS TXAPELKETA Herriko plazan.

Izena bertan eman beharko da 4,45 etarako.

Arratsaldeko 6etan: LORAMENDI DANTZA TALDEAREN ekitaldia Mitarte kalean.

Arratsaldeko 6,30etan: LARRAIN DANTZA Mitarte kalean.

Arratsaldeko 7,30etan: EMAKUMEENDAKO V.BOLO TXAPELKETA, Tril emakume taldeak antolatuta.

Gaueko 10,30etatik aurrera: TREPI ETA ARAWAK REAGEE TALDEAREN KONTZERTUA Mitarte kalean.

EGUN GUZTIAN ZEHAR HAINBAT ERAKUSKETA

Eskulanak, taila... Hiruatxen, hirugarren munduko taldearen, bidezko merkataritzako produktuen erakusketa eta salmenta izango da. Dena udaletxe zaharrear.

Aretxabaletako Euskal Presoak Euskal Herriratzeko plataformak kale irteera egingo du sinadurak bildu eta EPEH zapiak saltzeko

Maiatzaren 16a, domeka: OTALA ZELAI EGUNA

Goizeko 9etan UGAZTEIRA IRTEERA MURRUKIXO M.T.-REKIN. Bertako toponimia ezagutzeko asmotan 9,00tan elkartuko dira Murrukixoko lokal aurrean eta ondoren Ojala Zelaira Bazkaltzera.

Goizeko 10etan ARETXABALETAKO TXISTULARIEKIN DIANA.

Goizeko 11tatik arratsaldeko 5ak arte: HAURRENTZAKO GAZTELU PUZGARRIA.

Eguerdiko 12etatik ordu 1etara: ANIMALIEKIN JOKUAK.

Arratsaldeko ordu 2etan: BAZKARI HERRIKOIA. Antolatzaileek mahaiak jarriko dituzte eta bazkaria norberak eraman beharko du.

Arratsaldeko 4etatik 6etara: JOKUAK. Rokodromoa, kaja jokua, karaokea eta ipuin kontaketa.

Arratsaldeko 6etan: LORAMENDI DANTZA TALDEAREN ESKUTIK DANTZA SAIOA ETA ONDOREN MUSIKA.

Arratsaldeko 8etan: JAIAREN AMAIERA.

ANIMA ZAITEZ ETA BERTAN BAZKALDU. Honako zerbitzu hauek eskaintzen dizkizugu: taberna, mahaiak eta aulkiak. Musika eta haurrentzako opariak.



ERNE GAZTE, HEZIBIDEREN

ALDEKO APOSTUA

ERRENTA SEGURUA



HEZIBIDE
Hezkuntza Taldea

ALMEN ESKUALDEKO IKASTOLA ETA

ARRASATEKO IKASTOLA

SAN FRANTZIZKO XABIER - SAN VIATOR

bi aukera anitz bezain osagarri
honako ikasketak egiteko

1 BATXILERGO AUKERA GUZTIAK

- NATUR ETA OSASUN ZIENTZIAK
 - GIZA ETA GIZARTE ZIENTZIAK
 - TEKNOLOGIKOA, ESKOLA POLITEKNIKOAK
- ikastoloi transferitutakoa eta bere aholkularitzapean garatutakoa. Lanbide Heziketako tailerreko praktikak injinerutzarako konbalidatuta.

2 UNIBERTSITATE IKASKETAK


UNIBERTSITATEKO IKASKETA
GUZTIETARAKO, EGUN DAUDEN
UNIBERTSITATE GUZTIETAN, ETA GOI
MAILAKO HEZIKETA ZIKLOETARAKO
SARBIDEA.

3 ETA LANBIDE HEZIKETA

- GORPUTZ ETA KIROL EKINTZAK (ALMEN ikastola)
- IRUDI PERTSONALAREN AHOJKULARITZA (ALMEN ikastola)
- ANALISI ETA KONTROL KIMIKOA (ALMEN ikastola)
- INGURUGIRO KIMIKA (ARRASATEko ikastola - San Viator)
- INGURUGIRO OSASUNA (ARRASATEko ikastola - San Viator)
- OSASUNGINTZAKO DOKUMENTAZIOA (ARRASATEko ikastola - San Viator)
- ERIZAINZAKO LAGUNTZA OSAGARRIAK (ARRASATEko ikastola - San Viator)
- ILEAPAINKETA (ARRASATEko ikastola - San Viator)

AURREMATRIKULAZIOA: EKAINAREN 1 ETIK 9 RA

MATRIKULAZIOA: UZTAILAREN 1 ETIK 9 RA

	"Ate Ireki" eguna	Bilera informatiboa	Ordua	Tokia	Kontakturako pertsonak	
ALMEN IKASTOLA	99/5/19 Almen 16:30	99/5/19	18:00	Almen	Josebe Murumendaraz	943 71 49 07
ARRASATEKO IKASTOLA	99/5/20 San Viator 16:30	99/5/11	18:00	San F. Xabier	Margari Gorrotxategi	943 79 64 79
		99/5/20	18:00	San Viator	Idoia Urrutia	943 71 24 90



ALMEN
IKASTOLA



SAN VIATOR
IKASTOLA



SAN FRANTZIZKO XABIER
IKASTOLA

Ana Belen Hidalgo eta Igor Bastardo

Herriko katastroa eguneratzen

Zuzenbidea ikasi zuten bi atxabaltar hauek, badira lau hilabete herriko katastroa eguneratzen ari direla Bergarako erregistroan.

Aspaldian begiratu gabeko artxiboetan bitxikeria ugari aurkitu dituzte, batzuk kon-tatzeko modukoak eta beste batzuk isiltzekoak.

- Zein lanetan zabilzate erregistroan?

- Aretxabaletako katastroa eguneratzea da gure lana. Herri barruko etxe eta lokalen gaur egungo jabea, etxearen metro karratuak, non dagoen kokatuta eta zein partaidetza duen herriko baliabide amankomunetan aurkitu behar dugu. Lehenengo jabetik hasi eta gaur egun dueneraino heldu behar gara. Askotan jabe oso zaharrak agertzen dira, aspaldi hilda daudenak ere bai eta erregistroan salmenta eta heredentzia bidezko jabe aldatze asko egon direnez gaurkotu beharra dago. Gu garbiketa orokor bat egiten ari garela esan daiteke. Gure datuak Foru Aldundira doaz eta gero han hartuko dituzte aldatzeko behar diren erabakiak.

- Herri barruko etxeak bakarrik ari zarete aztertzen?

- Bai. Herritik kanpora dauden etxe eta lurren azterketa egiteko Foru Aldundiko pertsona bat etorri da. Lana ez da berdina, berak, batez ere, neurketak egiten ditu eta baserri-etxe izatetik herri-etxe izatera pasa direnak aztertu.

- Gauza kurioso asko aurkitu al duzue?

- Bai, luzea izango litzateke denak aipatzea batzuk, ordea, esan daitezke. Gizon batek, hildakoan, adibidez, bere etxebizitzaren kopuru bat ikastolari utzi zion, beste bat 14 urtetik beherako atxabaltar atzeratuei



**“Emakume
batek
etxebizitza eta
lur guztiak
bere arimari
utzi zizkion”**

eta beste bat 14 urtetik beherako atxabaltar umezurtz pobreei. Beste era bateko bitxikeriak etxebizitza eta lokalak ez inskribatzeagatik sortzen dira. Garai batean etxabe komertzialak zirenak gaur egun etxebizitza bihurtu dira, baina inskribatu gabe daudenez etxabe komertzial bezala agertzen dira erregistroan eta jadanik ez dauden konstruktoreen izenean gainera. Beste kasu batean, erregis-

troan, lurzorua bakarrik dagoela agertzen da eta gaur egun etxetxo bat dago egina.

- Zer izan da gehien harritu zaituztena?

- Oso kuriozosa izan zen emakume batek, etxebizitza eta lur guztiak bere arimari utzi zizkiola irakurtzea. Ez pentsa, gainera zoratuta zegoenik, hil baino bederatzi urte lehenago egina zuen testamentua eta burua bere lekuan zuela. Kasu honetan, gotzaitegia geratzen da guztiaz eta arima horren alde urtean hainbat meza emateko betebeharra du.

- Noizkoak dira aurkitu dituzuen daturik zaharrenak?

- Durana kaleko etxebizitzak dira zaharrenak, 1870 urte ingurukoak. Kasu horietan erabilitako neurriak ere ez dira gaurkoak bezalakoak, metro karratuen ordeztu metrozeleminak, areak eta zentiareak erabiltzen ziren. Kokatze orduan ere, gaur iparra, hegoa,... erabiltzen ditugu eta orduan eguerdia... Diruak, berriz, dukadoak, errealak... agertzen dira.

- Zer ikasi duzue lan honetatik?

- Aretxabaletako kale guztien izenez gain, herrian noble tituludunik ez daukagula jakin dugu. Bedarreta auzoko etxeak Francoren inizatibaz egin zirela, kuartela errepublikarra dela eta beti udaletxearena izan dela.

- Etxebizitza erosten duenari zer gomendatuko zenukete?

- Etxebizitza erosi baino lehen erregistroa joan eta zeinen izenean dagoen eta horrelako datu batzuk frogatzea esango genioke. Erosi ondoren, berriz, lehenbailehen erregistroa joan eta izena eman dezala, etxea erregistroan agertzen den jabearena delako. Garrantzi gutxiko xehetasuna dela uste du jendeak eta gero ezusteko galantak har daitezke.



Bidezko merkataritzaz

“Guk kontsumitzaile bezala gure eskariak sortzen dituzten ondorioen jakinean egon behar dugu eta kontsumitzen ditugun produktuen ekoizleentzako bizi baldintza egokiak eskatu”

Maiatzaren 11n Bidezko Merkataritzaren eguna ospatzen dela eta, honi buruzko gogoeta labur bat egiteko aukera izan dut txoko honetan.

Askotan pentsatu izan dut ez dakidala zenbaterainoko kontzientzia dugun bertako kontsumitzaile guztiok, erosten ditugun produktuen jatorriaz, egiteko erabili diren lan baldintzez etab. Ziur nago askok eta askok edozein dendatara joan eta markako deporteko zapatila famatu horiek erostean, inoiz ez edo oso gutxitan behintzat, galdearazi diogula geure buruari nork, non eta nola egin diren zapatila horiek. Eta hau zergatik ote da? Nire ustetan, gu bizi garen gizarte honek kontsumismo basati eta irrazional batera bultzatzen gaitu, honela produktu horrek atzean izan dezakeen historia gordina ezkutatu.

Gaur egun, multinazional askok guk kontsumitzen ditugun produktuak Hirugarren Munduan egiten dituzte bertakoak esplotatuz eta herrialde horietan jasan ezina den pobrezia egoera bultzatuz. Gu konsziente al gara honetaz? Guk kontsumitzaile bezala gure eskariak sortzen dituzten on-

dorioen jakinean egon behar dugu eta kontsumitzen ditugun produktuen ekoizleentzako bizi baldintza egokiak eskatu. Baina hau nola egin genezake? Erosterako orduan sentsibilizatuta egonez gero, poliki-poliki lortu daitekeen zerbait da.

Urte askotan zehar, honetan lanean dihardutenak Bidezko Merkataritzako dendak dira. Beraien helburu nagusia Hirugarren Munduko ekoizleei lanerako baldintza eta soldata duinak ziurtatzea da, honela multinazionalen duden dependentzia apurtuz. Bidezko Merkataritzako dendak Europan oso zabaldua dauden dendak dira eta hemen poliki-poliki hedatzen ari dira, jadanik bada urte bat Arrasateko “Harreman” Bidezko Merkataritzako denda zabaldu zena. Gure lana, erosteko ohitura batzuk sortzea da, honela etorkizunean denda hauek gauza puntual bat izan beharrean produktu hauek denda denetan aurkitzeko aukera izan dezagun eta bide batez Hirugarren Munduko biztanleekiko elkartasuna sendotzeko.

Irma Arabaolaza

M

MEMESA

Industri hornidurak

Tfnoa: 943 71 24 11
ARETXABALETA

OSKAR

HARATEGIA

Loramendi, 1
☎ 943 79 71 69

Iber

★ Loteria ★

✿ Paperdenda ✿

Otalora, 2
Tfnoa: 943 79 04 39

PAGALDAI

Opari denda

Durana, 33 ☎ 943 79 10 14
ARETXABALETA

Hazienda, urteroko mamua

Udaberriarekin batera heltzen da urtero baina helduko ez balitz ere inor ez litzateke tristetuko. Ez da gaixotasun bat, baina bai, burukomin ugari eta umore txarra sortarazten duena.

Apirilaren 6an zabaldu zen errenta aitortpena egiteko epea eta ekainaren 25a bitartean hainbat herritarri tokatuko zaigu ditxosoko paperok betetzea.

Batzuk mekanizatua, beste batzuk arrunta; batzuk bateratua, beste batzuk banakoa. Bi hilabete eta erdiko tarte horretan, langile gehienek egin beharko dute errenta aitortpenari dagokion paper kontua. Batzuei banketxe edo kutxek egingo dizkiete, beste batzuek aholkularitza eramango dituzte eta bada- go Bergarako bulegora joan eta bertan egingo duenik ere.

Bakoitzak aukera dezake non eta nola egin nahi duen baina egin beharra du. Oso gutxi geratuko dira eginbehar horretatik libre.

NON ETA NOLA EGIN

Errenta aitortpena egiteko orduan bi aukera daude, arrunta egitea edo mekanizatua. Horretarako paperdendetan bi motako paperak saltzen dituzte. Arrunta egitea aukeratzen duena banketxe, kutxa edo aholkularitza batera joan behar da. Bertara paper guztiak eraman eta beraiek arduratzen dira egin eta ondoren Ha-



Txanda aurrez hartu arren jendea atetik kanpora zegoen Bergarako bulegoan

ziendara bidaltzeaz.

Mekanizatua egitea aukeratzen duenari, berriz, Bergarara joatea tokatzen zaio. Hara joateko, ordea,

Bergaran, errenta aitortpen mekanizatua egiteko txanda aurrez hartu behar da. Telefonoak:

• **943 31 19 99 euskaraz**

• **943 31 18 88 gazteleraz**

Ordenagailu batek erantzuten du. Ez dago berak lehenengo ematen duen ordua zertan hartu, ezetza esanez gero beste aukera batzuk proposatzen ditu, gustokoenari baietza eman arte.

lehenengo, txanda hartu behar da, gero itxaron beharrik, edo gehiegi itxaron beharrik behintzat, egon ez dadin.

NOREN BETEBEHARRA

Lanean dabilzan gehienei tokatuko zaiela errenta aitortpena egitea ez dago esan beharrik. Baina egongo da norbait oraindik bete-behar honetatik libre geratuko dena. Beste batentzat lan egiten dutenen artean, urteko etekin gordina 1.200.000 pezetatik beherakoa bada, ez dago egin beharrik. Autonomo edo norberarentzat lan egiten dutenentzat, berriz, ez dago mugarik, denek egin behar dute.

Ezkonduta daudenek banakoa edo bateratua egiteko aukera dute. Ezkondu gabe elkarrekin bizi diren bikoteak bestalde, aukera honetatik kanpo geratzen dira. Agustin Vicente, Bergarako bulegoko langileak dienez "Bietako batek diru sarrerarik ez duenean edo bien diru sarreren

artean ezberdintasun haundia dagoenean, merezi du bateratuta egiteak. Bi diru sarreren artean ez bada dago ezberdintasun haundirik, berriz, banakoa eginda hobeto ateratzen da. Dena dela, Bergaran bi eratarata egiten dugu, norberak aukera dezan gehien interesatzen zaiona”.

**AURKEZTU BEHARREKO PAPE-
RAK**

Kasu guztietan ez da paper kopuru bera aurkeztu behar. Badaude ordea, denek aurkeztu behar dituzten hainbat. “Jende askok gizarte-segurantzako papera galdu eta guri eskatzen digute, baina hori Eibarraren eskatu behar da. Kontribuzioa, berriz, eraman ezean bertan jartzen dugu. Bestalde, botikako gastuak aurkez daitezkeen azken urtea izango da, datorren urtetik aurrera legea aldatu egiten da eta”.

Etxebizitza erosi bada beste paper multzo bat ere eraman behar da. Mekanizatua egitera joanez gero paper orijinalak eramatea gomentatzen da, bati baino gehiagori tokatu zaio eta beste egun batean itzuli beharra izatea, kopiak eramategatik. Bergaran, gainera oso ondo

begirutzen omen dituzte paper guztiak.

**ZER EGIN GUTXIAGO ORDAIN-
TZEKO**

Gutxiago ordaintzea nahiko zaila da. Badaude, ordea, legez kanpoko ezer egin gabe, Haziendari diru gutxiago emateko bideak. Errentagarriena eta jendeak gehien erabiltzen dituen

EPSV edo “Borondatezko Gizarte Aurrikuspenerako Entitateak” dira. Pentsioen osagarritzat erabiltzen den sistema da, eta, zerga oinarritik, hau da, soldata eta banketxeko interesen baturatik deskontatzen da. Errentagarria da etengabeko zerga delako, zenbat eta gehiago irabazi, gehiago kentzen da diru sarreratik. Ezin da, ordea, irabazi garbien %20 baino gehiago sartu eta 10 urtean diru hori ezin da erabili.

Etxebizitza kontu batean sartzea zerga gutxiago ordaintzeko beste bide bat da. Gaur egun, ordea, jende gehientsuenak EPSV delakotara jotzen du, batez ere 50 urtetik gorako jendeak.

IRUZURRAK

Agustin Vicentek dioenez jendea iruzur inozenteak egiten saiatzen da “Bi 10-T agiri eduki eta bakar bat ekarri... horrelako tranpatxoak egiten ditu jendeak. Gaur egun, ordea, informatika bidez guzti hori berehala atzematen dugu. Euskal Herriko kanpo egindako

Non egin daiteke errenta aitortpena?

- Kutxetan:

- Euskadiko Kutxa
Larrin Plaza, 1 943 79 00 33
- Gipuzkoako Kutxa
Durana, 27 943 79 10 42

- Aholkularitzetan:

- Zenbaki
Basabe Industrialdea C pab. 943 71 21 12
- Andra Mari
Andra Mari auzunea, 3 943 79 29 26
- Emun Koop. Elk.
Arrasate 943 79 71 23

lanak, bestalde, harrapatzeko zailagoak dira, Sevillan etxebizitza saldu eta ez deklaratzeko esaterako”.

Lehen bost baziren ere orain lau urte ditu bai Haziendak, bai aitortpena egin duen langileak, errenta begiratu eta zuzentzeko. Haziendak, bestalde, errenta aitortpen arrunt bat eramatean, berak dituen datuekin beste bat egiten du. Bien arteko ezberdintasuna oso haundia bada, langileak ekarritakoa berrikusi egiten da. Gero eta gehiago berrikusten dira, gainera, aitortpenok.

BERGARAN, MEKANIZATUA

Bergarako bulegoan errenta aitortpen mekanizatua bakarrik egiten da. Bere alde txarrak eta onak ditu honek. Nahiz eta txanda aurrez hartzearekin hobetuta egon, beti tokatzen da 20 bat minutu itxarotea. Errenta aitortpenean kobratzea ateraz gero, bestalde, hiru egunen buruan jasotzen da dirua. Horretarako behar beharrezkoa da norberaren kontu korronteko 20 zenbakiak eramatea. Ordaintzea tokatuz gero, berriz, %60 ekainaren 25a baino lehen kentzen dute norberaren kontu korrontetik eta bigarren zatia, %40, azaroaren 10a baino lehen. Diruz larri ibiliz gero atzerapena eska daiteke. Atzerapen horren interesa %5ekoa izan ohi da.

“Nik Bergarara joatea gomenda-

Aurkeztu beharreko agiririk garrantzitsuenak:

- Aitortzailearen eta ezkontidearen NANaren fotokopiak edo etiketa baliokidea.
- Famili liburuaren fotokopia
- Lan atxikipenen ziurtagiria (10-T inprimakia)
- Kontu eta baloreen interes eta/edo dibidenduen ziurtagiria
- Etxebizitzaren ziurtagiri, eskritura eta ordainagiriak.
- Ezintasun-ziurtagiriak.
- Borondatezko Gizarte Aurrikuspenerako Entitatei edo beste batzuei egindako ekarpenen ziurtagiriak.
- Haurren zaintzaren justifikagiria.
- Donazio eta donatiboen justifikagiriak.
- Gaixotasun eta/edo aseguru-primen gastuen justifikagiriak.
- Kenketarako eskubidea duten aurrekoen errola-ziurtagiria.
- Helbideratze-kontuaren zenbakia.

tuko nuke. Behin betikoa egin aurretik ondo begiratzan dugu akatsik edo arazorik egon ez dadin. Batzuetan jendea kezka etorri izan zaigu banketxe edo kutxan egin eta gaizki dagoela esanaz. Eginda badago, guk, han, ezin dezakegu konpondu. Ezkondutako bikoteen kasuan, berriz, bi modutara egiten diegu beraiek aukera dezaten interesatzen zaiena” dio Agustinek.

LEGE BERRIA DATORREN URTEAN

Datorren urtetik aurrera lege berria jarriko da indarrean. Araudia oraindik onartu gabe dago baina legea jadanik atera dute. Aldaketa garrantzitsuena aitortpena egiteko jarritako diru sarreraren mugan dago, 5.000.000 pezetan hain zuzen. Hau, ordea, ondo zehaztu behar da.

5.000.000 pezetatik beherako diru sarrerak dituztenek ez dute errenta aitortpena egin beharrik, urte gutzian nagusi berak ordaindu badio. Langile ebentualen kasuan, nagusi berberak ordaindu arren lan kontratu ezberdinak izan baditu, egin beharra izango du. Jubilatutazuei ere, Gizarte-Segurantzaren eta Lagun Arotik jasoz gero dirua, egitea tokatuko zaie. Norbaiti, bestalde, egin beharrik izan gabe, kobra-



Bergaran errenta aitortpen mekanizatua bakarrik egiten dute

tzea aterako balitzaio egiteko aukera izango luke.

Langabetuen kasuan, langabetzia hileroko edo dena bapatean kobratzeko aukera dago. Bigarren kasu hau aukeratuz gero, orain hiru urte, jasotako diru guztiagatik errenta aitortpena egin beharra zegoen. Orain bi urte 500.000 pezeta kentzen ziren aitortpena egiteko eta aurten 1.000.000 pta. Datorren urtean, berriz, ez dute aitortpenik egin beharrik izango.

Banandutako bikoteen kasuan ere badago berrinkutza. Lehen, seme-alaben zaintza zuenak bakarrik sar zitezkeen hauek, bere errenta aitortpenean. Orain, berriz, seme-alaben zaintza ez duenak ere sar ditzake bere aitortpenean, zaintza duenak baimena ematen badu.

Bergarako bulegoan iaz 15.000 errenta aitortpen jaso ziren. Bertakoen esanetan, kopuruak zertxobait behera egin zuen aurreko urtetik, kutxek aitortpen telematikoa egiten dutelako eta sistema honekin ere nahiko azkar kobratzen delako. Aurten, egunean 270 aitortpen inguru jasotzen ari dira. Horretarako bertako langileez gain Donostiatik etortzen da jendea lan egitera. Guztira 12 pertsona daude errenta aitortpenak egiteko. Kanpaina hau bukatzean Donostiara joango dira, bertan, jasotako aitortpenak berrikusteko.

Aretxabaletako datuak:

1996ko errenta aitortpena (1997an aurkeztua):

- Aurkeztutako aitortpen kopurua: 2.876
- Etekinak guztira: 7.939 milioi
- Murrizketak guztira: 491 milioi
- Kuota osoa: 1.428 milioi
- Kuota likidoa: 1.195 milioi
- Aitortpen mota:
 - Familia unitatetik kanpo: 939
 - Bateratua: 765
 - Banakoa: 1.172
- Modalitatea:
 - Mekanizatua: 1.253
 - Arrunta: 1.623
- Kuota osoaren %0,5239 esleipena:
 - Zehaztu gabekoa: 987
 - Eliza katolikoa: 979
 - Gizarte xedeak: 910

1997ko errenta aitortpena (1998an aurkeztua):

- Aurkeztutako aitortpen kopurua: 3.043
- Etekinak guztira: 8.331 milioi
- Murrizketak guztira: 322 milioi
- Kuota osoa: 1.594 milioi
- Kuota likidoa: 1.284 milioi

Gaurkoan herritarrok Aretxagazetaren inguruan duzuen iritzia jakin asmoz inkesta hau prestatu dugu. Inkesta honetatik jasoko ditugun datuak oso garrantzitsuak dira guretzat, beraz, herritarrok inkesta erantzutera animatzen zaituztegu.

Erantzuten duzuenon artean **bi lagunendako afari eder** bat zozketatuko dugu. (Inkesta atzean adierazten diren lekuetan utz dezakezue. Epea maiatzaren 28 artekoa da).

Adina 0-18 19-25 26-45 46-60 >60

Sexua Emakumea Gizona

Bizilekua Auzoa: _____ Herria: _____

Jarduera Lanean Etxeko lanak Langabetua Ikaslea Jubilatua Besterik

Aldizkaria jasotzeko modua Elkarteko bazkide Harpidedun Eroslea Besterik

Jasotako aleen kopurua Guztiak Tarteka

Euskara maila	Oso ongi	Ongi	Gutxi	Batere ez
Hitzegin				
Irakurri				
Idatzi				

Hobekien menperatzen den hizkuntza

Euskara Erdera Biak berdin

Nola iristen zaizu aldizkaria?

Banatzaile bidez Korreoz Erosketa kiosko etab.etan Banaketa puntuetan doan

1.- Herriko edo eskualdeko aldizkaririk ezagutzen al duzu?

Bai Ez Zeintzuk:

2.- Irakurtzen al duzu Aretxagazeta aldizkaria?

Bai Ez Gainerik begiratzen dut

3.- Beste inork irakurtzen al du Aretxagazeta aldizkaria etxean?

Bai Ez Batzutan

4.- (Aurreko galdera baiezkoa bada) Adinaren eta sexuaren arabera nola sailkatzen dira irakurleak?

	Gizonezkoak	Emakumezkoak
0-12		
13-18		
19-30		
31-55		
>55		

5.- Zenbat denbora ematen duzu Aretxagazeta irakurtzen?

<15 min. 15-30 30-40 >40 Ez dakit

6.- Egunkaririk irakurtzen duzu?

Bai Ez

7.- Irakurritz gero, zein?

Egunkaria Gara El Mundo El Diario Vasco

El Pais El Correo Español Besterik

8.- Kutsu ideologikorik aurkitzen al diozu? Bai Ez

9.- Aldizkaria etxean jasotzeagatik ordainduko zenuke? Bai Ez

Izen abizenak:.....

* Inkesta anonimoa izan daiteke, izen-abizenak saria zozketatzeko bakarrik kontuan hartuko dira.

Telefonoa:.....

Inkesta Eroski, herriko okindegietan, herriko hainbat tabernetan utzitako kaxetan sartu edo Aretxagazetara ekar dezakezue. Postaz, 151 postakutxatilara bidal daiteke. Zuen partaidetza eskertuko genuke.

10.- Zein da aldizkariko atal bakoitzari buruz duzun iritzia?

Atalak	Oso ona	Ona	Erdizpurdikoa	Txarra	Ez dut irakurtzen
Boteprontoan					
Eskutitza					
Hamabostean behin					
Iritzia					
Iturririk iturri					
Erreportajea					
Kirolak					
Aretxa-gaia					
Kontu zaharrak					
Aretxazoka					
Besteak beste					
Liburutegiko txokoa					
Agenda					
Hurretik					
Komikia					

11.- Zer erantsiko zenioke aldizkariari? (Sail berriak, argazki gehiago, publizitate gehiago...)

12.- Zer kenduko zenioke aldizkariari?.....

13.- Baloratu aldizkariaren diseinua (Zenbakia borobildu): 1 2 3 4 5 6 7 8 9 10

14.- Zenbateraino jasotzen du Aretxagazetak herriko informazioa?

Oso ondo Ondo Gutxi Oso gutxi

15.- Aretxagazeta irakurri aurretik euskaraz irakurtzen zenuen?

Bai Ez Noizbehinka

16.- Euskaraz irakurtzeko ohiturarik baduzu?

Bai Ez Noizbehinka

17.- Aldizkariak duen erredakzio modua atsegina egiten al zaizu?

Bai Ez

18.- Zailtasunak al dituzu euskararekin Aretxagazeta aldizkaria irakurtzeko?

Erraz ulertzen dut guztia Birritan irakurri behar izaten dut

Ulerkaitza egiten zait Asko kostatzen zait

19.- Aretxagazetaren publizitatea... Asko dago Gutxi dago Nahikoa

20.- Aldaketarik nabaritu al duzu lehenengo ataletik hona?

Bai, onerako Bai, txarrerako Ez

21.- Aretxagazetak... Astekaria izan behar luke Hilabetekaria

Hamabostekaria Besterik

22.- Aretxagazetaren orrialde kopurua

Egokia da Gehiago izan beharko lituzke Gutxiago

23.- Normaltasunez iristen zaizu Aretxagazeta? Bai Ez

24.- Zerbait gehitu nahi baduzu:.....

Gaztetxea: aldaketarako garaia heldu da

Maiatzaren 14an egingo da asanblada bertako egoera aztertu eta aldatzeko

Gaztetxea, batzuen beldurra eta beste batzuen askatasun txokoa, batzuen protestak eta beste batzuen aldarrikapena. Hamar urte pasa dira Aretxabaletako martxan jarri zenetik eta tarte horretan gauzak asko aldatu dira.

“Lehen, zapatu gauetan beste tabernak ixten zituztenean asko joaten ginen gaztetxera. Orain han ezin da sartu”. Herriko gazte askoren islada besterik ez dira hitz hauek. Hori dela eta, gaztetxearen egoera eta giroa aldatu nahian talde bat lanean hasi da.

Maiatzaren 14an Aretxabaletako Gazte Asanbladak deituta bilera egin zen. Bertan aipatutako gaietako bat, tabernariarena izan zen. Orain arte egon denari maiatzaren 7an bukatu zitzaion kontratua eta hori apro-

betxatuz, jende berria sartu nahi da. Herriko gazteentzat aukera ezin hobea da, beraz, interesa duten guztiek hurrengo ostirala bitartean gaztetxean izena eman dezakete.

Maiatzaren 14an asanblada

Pasa den iganderako, maiatzak 9, beste asanblada bat antolatuta bazegoen ere azkenean ez zen egin. Horrela bada, bilera honetan

aztertzekoak ziren gaiak, gaztetxeko estatutuak eta tabernariaren kontratua, hurrengoan egingo dira, maiatzaren 14an hain zuzen. Arratsaldeko 7etan izango den bilera honetan, tabernaria ere aukeratuko da eta Gazte Asanbladakoek herriko gazte guztiak animatu nahi dituzte bertan parte hartzera.

Herriko gazteen parte hartzea

Ezin da esan gaztetxea hutsik egoten denik, igande goizetan kotxe ugari ikusten baita inguruan. Gehienak, ordea, kanpotarrak dira eta talde itxia osatzen omen dute gainera. Aukera paregabea izan daiteke gaztetxeko giroa aldatu eta jende berria eta ekin-tza berriak antolatzen hasteko. Horretarako herriko gazte guztien partaidetza ezinbestekoa izango da. Gero protestatzerik nahi ez duenak, mugi dadila orain eta parte hartu.



Aste bukaeratan kotxe ugari izaten da gaztetxe inguruan



**AZKARATE
AROSZTEGIA**

Tailerra: Mahasterreka, 18
BERGARA
943 76 47 19

ARETXABALETA
943 77 01 24

**Dorleta
taberna**

Bezeroen zerbitzura

Loramendi, 8
☎ 943 79 94 15

Herriko
plazan
ARTANO

Girorik onena

Herriko plaza, 3 • 943 79 62 75

Lasai

Mirian Mantecosa
MASAILARIA

Lezama merkatal zentrua
Santa Kurtz, 24 etxabea
20550 Aretxabaleta

**Masaia terapeutikoa
Posturen azterketa
eta egokiratzean
diplomatusa**

Tfnoa: 943 77 04 34

LEIBAR
arrandegia

Mitarte Kalea, 1
Tfnoa: 943 77 13 79
ARETXABALETA



Bi segundugatik errekorrik ez

Joel Hernández mexikarra izan zen irabazlea



Senior mailako irabazleak, ezkerrean Joel Hernández mexikarra

Joan den domekan Urkuluko urtegian bildu ziren 74 korrikalariak haizea izan zuten etsai nagusia. Joel Hernández mexikarra izan genuen irabazlea, eta bi segundu falta izan zitzaizkion Kamel Zianik 40'29"tan ezarrita duen errekorra gainditzeko. Nahiz eta haize gogorra izan, lasterketa bikaina egin zuten Joelek.

Goizeko 10,30etan umeen probak hasi ziren eta bertan 40 gaztek hartu zuten parte. Lasterketa nagusian, bestalde, seniorretan 27 korrikalari izan ziren, 30 beteranoetan, 8 emakumezkoetan eta 9 juniorretan. Kategoria guztietan izan genituen herriko ordezkariak, gehienbat seniorretan. Emakumezkoetan, berriz, herriko emakume bakarra izan zen, Maria Elena Llorente hain zuzen.

SAILKAPENA:

Senior

- | | |
|----------------------|-------------------|
| 1.- Joel Hernández | 40'31" (Mexiko) |
| 2.- Manu Hurtado | 45'22" (Azpeitia) |
| 3.- Javier Rodriguez | 46'58" (Azpeitia) |
| Lehen atxabaltarra: | |
| Joseba Larrinaga | 47'27" |

Emakumeak

- | | |
|----------------------|-------------------|
| 1.- Onintza Zeberio | 25'35" (Azpeitia) |
| 2.- Pilar Arriola | 27'37" (Elgoibar) |
| 3.- M. Carmen Garcia | 29'43" (Arrasate) |
| Lehen atxabaltarra: | |
| Elena Llorente | 33'28" |

Beteranoak

- | | |
|---------------------|--------------------|
| 1.- César Perez | 21'38" (Donostia) |
| 2.- Javier Mentxaka | 22'21" (Arrasate) |
| 3.- Julio Pascual | 22'52" (Zumarraga) |
| Lehen atxabaltarra: | |
| Alfonso Luelmo | 23'07" |

Junior

- | | |
|----------------------|-------------------|
| 1.- Fernando Nogales | 24'15" (Arrasate) |
| 2.- Unai Elorza | 25'19" (Arrasate) |
| 3.- Oliver Fernández | 25'46" (Arrasate) |
| Lehen atxabaltarra: | |
| 4.- Martin Antxia | 34'20" |

Iker Sanzen oroimenezko plaka

Aurten juniorretan eman den lehen saria berezia izan da. Izan ere, sari hau Iker Sanzen oroimenez banatu da. Ikerren oroimenezko plaka Eneritz Zubizarretak eman zion Fernando Nogalesi, lehenengo sailkatu zen junior arrasatearrari.

Argazkian Fernando Nogales eta Eneritz Zubizarreta.



Dorleta taberna

Bezeroen zerbitzura

Loramendi, 8 •
☎ 943 79 94 15

JOSU HARATEGIA

Urdaitegia-Gozotegia
kroasantegia
Janari prestatuak

Mitarte, ☎ 943 77 03 08

Jauregi Okindegia

Otalora, 10
Tfnoa: 943 79 57 47
Aretxabaleta

BASABE jatetxea

Basabe bidea z/g
Tfnoa: 943 79 91 84
Aretxabaleta

Iñaki Galfarsoro "Herrero"

Errekako arrantzalea

Iñaki Galfarsoro errementari izateagatik ezagutzen dute askok. Dena dela, Iñakik badu afizio berezi bat, arrantzan egitea. Inguruko errekek ondo ezagutzen ditu eta baita bertako bizilagunak ere: amurrainak, aingirak, eskailuak, kangrejoak...

Gaztea zenetik hona, osterera, inguruko errekek arrainez josita egotetik hutsik egotera pasatu dira. Dena dela, egunen batean Deba ibaia garbi eta arrainez betea egongo den esperantza du.

• Iñaki, errementaria izateaz gain, arrantzalea ere bazaitugu. Nondik datorkizu arrantzan egiteko zaletasuna?

Nire aitaregandik datorkit. Gaztetatik errekan arrantzan ibilitakoa naiz. Oñatin jaioa naizenez, bertako erreketan ikasi nuen. Oñatik erreka miragarriak zituen eta orain ere badi-tu. Aretxabaletara etorri nintzenez, hemengo errekek ere zoragarriak ziren, arrainez jositakoak, amurrainak, aingirak, eskailuak... Gure etxeko leihotik, esaterako, errekan amurrainak ikusten genituen.

• Jende askok egiten zuen arrantzan orduan?

Arrantzan egiten zen, baina ez orain egiten den arrantza deportiboa. Orduan pitak erostea garestia zen eta kordelakin egiten zen arrantzan. Trismailua, sarea... erabiltzen ziren. Ni neuk kainaz arrantzan egin dut beti, ez dut sekula arrain bat eskuz harrapatu..

• Aurten atera al duzu arrantzan egiteko lizentzia?

Bai, urtero atera izan dut. Aurten Euskadikoa, Castilla y Leon eta Kan-



**“Ni neuk kainaz
arrantzan egin dut
beti, ez dut sekula
arrain bat eskuz
harrapatu”**

tabriakoa atera ditut. Martxoaren 19an zabaldu zen eta San Inaziorarte dago zabalik.

• Arrantza, zortea, kirola ala jakinduria da gehiago?

Jakinduria eta kirola. Arrantzan %90a jakinduria da eta ikasi egin behar da. Batzuk beti izaten dute zortea baina jakin egin behar da, nora joan, zein modalitate erabili... denean bezala, esperientziak asko erakusten du.

• Hemen inguruan non egiten duzu arrantzan?

Araba aldean erreka ederrak dau-

de eta hango erreketara askotan joaten naiz. Arabako erreka txiki askotan, bestalde, debekatuta dago arrantzan egitea.

• Arrantzan dauden arauen inguruan zein iritzi duzu?

Arauk eta neurriak egotea ondo dago, baina nik uste dut arrantzako arau eta zigor batzuk neurritz kanpokoak direla. Zortzi amorrainetik gora ezin daiteke harrapatu eta 19-20 zmtik gorakoa izan behar du. Arraina hartu ostean, neurtu eta neurrikoa bada otzarara, bestela osterera ere errekarat botatzen da. Deskuideoan, neurri txikiagokoa hartuz gero, isun haundiak daude.

• Anekdotarik izango duzu kontatzeko...

Behin Eskoriatzako kalean sartu nintzen errekan eta Debaren sorreran irten nuen. Goizean goiz hasi nintzen eta auskalo zein ordutan amaitu nuen, arrain asko harrapatu nituen orduan. Beste behin Santanderrera joan ginen arrantzan. Bertako errekek askoz zabalagoak dira eta honek arrantzan egiteko modalitate desberdina eskatzen du. Ez nuen arrain bat bera ere harrapatu. Hango erreketan ez dut hemengo tailarik ematen.

• Deba ibaia berreskuratuko al dugu noizbait?

Nik badut behintzat horren esperantza. Beharbada nik ez dut hori ikusiko, baina, orain egiten ari diren kolektore lanekin erreka garbiago izango dugu aurrerantzean. Hori lortzen bada, amurrainak berehala ugaltzen dira.

• Eta arrantzaren inguruko ametsik baduzu?

Bai, nire ametsa izozkin bat harrapatzea da. Eskozian ei daude asko eta agian bertara joan beharko dut.

etxean eskuratu!

Bideoa.
Iraupena: 80'
1.200pzta.



Kotxe pegatina.
200pzta.



Pin-a
100pzta.

Izen-abizenak _____
Helbidea _____
Posta Kodea _____
Herria _____
Herrialdea _____
Telefonoa _____
Kontu Korrontea (20 zenbakiak) ____/____/____
edo taloi bat.

ESKAERA

MATERIALA	KOPURUA	ZENBATEKOA	OSOTARA
Bideoa		1.200	
Pin		100	
Kotxe pegatina		200	
Bidalketa gastuak			+300
			OSOTARA

Bidali lehenbailehen.

Korreoz: **KONTSEILUA**
Martín Ugalde Kultur Parkea
20.140 ANDOAIN

Faxeaz: 943.59.30.51

EUSKARAREN GIZARTE ERAKUNDEEN



KONTSEILUA

ARRITZEKO, S.L.



27 etxebizitza, lokalak eta garajeak
Santa Kurtz kalean • ARETXABALETA

Fueros, 26 - 5º Of. 1 • Tfnoa-Fax: **945 230408** • VITORIA-GASTEIZ

Jaunartze garaia

Non daude neskak? Argazkia ikusita garbi dago neskek eta mutikoez ez zutela batera egiten jaunartzea garai hartan. 1945 urtea zen eta bat edo beste gaztetxoagoa izan arren, 7 urte zituzten gehienek. Txaketa edo jertsea, baina denek fraka motzak eraman behar zituzten eta gurutzea paparrean, noski. Germanek gogoan du bere trajeko botoiak mojek forratu zizkiotela.

Jaunartze ostean bazkaria etxean egin ohi zen eta beti egoten zen aparteko zerbait jateko. Abadeak, berriz, Don Angel herriko parrokoa eta Luis Arregi, Arkarozoko abadea dira. Argazkia, parrokoaren etxe parean ateratakoa da, gaur egun Euskadiko Kutxa dagoen lekuan.



Abadeak: **Don Angel Garmendia eta Luis Arregi.**

Lehenengo lerroan, ezkerretik eskumara: **Jose Mari Idigoras, German Gonzalez, Javier San Miguel, Emiliano Altube.**

Bigarren lerroan: **Tomas Chinchurreta, Cipri Beitia, Enrique Arenaza.**

Hirugarren lerroan: **Jose Mari Axpe, Jose Ignacio Zubia, Tomas Iturricastillo.**

Argazkia eta informazioa: German Gonzalez.

ARGAZKI

UrKiola

Tfnoa: 943 79 39 20
ARETXABALETA

GARBITU S.
COOP.

**Garbiketa
orokorrak**

Errekabarren 3- Behea
Tfnoa: 943 79 01 28

Mobiliario
ARENAZA

ALTZARIAK
DISEINUA
APAINKETA

Bizkaia, 1 - Tfnoa: 943 79 08 07
ARETXABALETA

**BENGOA
URDAITEGIA**

*Bertako okelak eta
mortzilak*

Durana, 9
Tfnoa: 943 79 19 79



LANA

◆ **Loramendi Euskara Elkartek dinamizatzaile bat** behar du. Interesatuok deitu 943 77 09 70 telefonora edo eta bidali curriculum-a Aretxabaletako udaletxe zaharrera, Durana, 11 20.550 Aretxabaleta.

◆ **Emakume bat behar** da haurrak zaindu eta etxeko lanak egiteko. Interesatuok 943 79 04 45 telefono zenbakira deitu.

◆ **Zerbitzari** euskalduna behar da. Tfnoa: 945 44 50 86

◆ **Neska prest**, etxeko lanak egiteko edo umeak zaintzeko. Tfnoa: 943 77 17 42.

◆ **Langaiko lan eskaintza**

Ordenagailuak mantentzeko teknikaria. Deba Garaia. Erref. 18372/4.

Arkitektoa. Bilbo. Erref. 17476/4.


Sukaldaria. Markina-Ondarroa. Erref. 19580/1.

Operarioa. Deba Behea. Erref. 19628/2.

◆ **Lan eskeintza publikoak.**

Antzuolako Udala. Administrazioari laguntzailea.

Epea: 99/5/15
Oinarriak: GAO 99/4/20



Zure iragarkia honako txoko honetan jarri nahi baduzu, deitu 943 79 86 21 telefonora edo 943 77 18 54 erantzungailura. Dohainik da.

Ultzamako Udala. Larraintzar herri eskolako atezaina/zerbitzu anitzeko langilea. Titulazioa: OHO edo baliokidea, euskara.

Epea: 99/5/18
Oinarriak: NAO 99/4/19

Berriozarko Udala. Administraria. Titulazioa:

BBB edo baliokidea.
Epea: 99/5/18
Oinarriak: NAO 99/4/23

Ezkabarteko Udala. Zerbitzu anitzeko arduraduna.

Epea: 99/5/23
Oinarriak: GAO 99/4/23



DENETIK

◆ Miele lehorgailu bat salgai. Egoera oso onean. Interesatuok deitu 943 79 85 83 telefono zenbakira.

◆ Gela bat hartu nahi dut alokairuan Aretxabaletan. Tfnoa: 670 05 47 63.

◆ Laredon 6 pertsonentzako apartamentua dago alokagai. Igogailua du. Uztailean, hamabostaldia 80.000 pta. Tfnoa: 943 764434



ETXEBIZITZA

◆ Lokal komertziala salgai edo alokagai dago Aretxabaletan, toki zentriko eta eguzkitsuan. Orain artean ileapaindegi eta edertze areto moduan funtzionatu du. Tfnoa: 943 71 12 70.

◆ Baserri zahar bat erosiko nuke berrizteko asmoz Deba Bailaran. Tfnoa: 649 67 19 14.

◆ Etxe bat erosi nahi genuke Aretxabaletan. Tfnoa: 943 79 86 21

◆ 57 m²ko garajea salgai Errekabarren kalean. Tfnoa: 943 79 74 73.



LEHIAKETAK

◆ **San Pedro jaietako egitarauaren azala aukeratzeko lehiaketa.** Eskoriatzako Udaleko Kultura Batzordeak 1999ko San Pedro jaietako egitarauaren azala aukeratzeko lehiaketa antolatu du. Edozeinek parte har dezake eta edozein eratako lanak onartuko dira. Neurria, 50x70 zm.koa izango da. Lanean, "Eskoriatza, 1999ko San Pedro jaiak" "Ekainak 28, 29, 30, uztailak 1" lema agertu beharko da. 30.000 pta.ko sari bakarra emango da. Lanak Eskoriatzako Kultur Etxean aurkeztu beharko dira, ekainaren 3a baino lehen. Partehartzailearen datuak kartazal itxi batean eramango dira.

Jose Mari bodegoia

Eguneko menua

Nafarroa, 6
☎ 943 79 20 45
Aretxabaleta

ZARAIA TABERNA

Goizeko 5,30etatik zure zerbitzuan
Tfnoa: 943 79 88 95
MANTEKA ANAIK



MAPFRE
Aseguroak

Errekabarren, 3
Tfnoa: 943 77 11 76

GEMES

- Depilazio elektrikoa
- Makilaia permanentea
- Kutisaren garbiketa

Durana, 40-2 ☎ 943 79 99 18
Aretxabaleta

Jairik jai



M. J. Artekas

Uda giroa atzematen da. Inguruko herrietako jaiak atejoka datoz eta praka motxak janzteko garaia ere heldu zaigu. Batzuendako kurtsoko azken sprinta, beste askondako, berriz, eguzki izpitara biluzteko garaia. Baina batzuendako zein besteendako oporraldi garaia. Momentuz utzi ditzagun oporrak alde batera, ez baldin badugu nahi azken sprintean maldan behera joatea.

Eguzkiak gero eta astunago astintzen duen honetan, makina bat kontu dauzkat zuei zabalteko. Hasteko, esan HIES ekimenak antolatutako komiki lehiaketan, **Amaia San Vicente** apotzarra eta **Maitane Garai** Larrinuarra izan zirela irabazleak. Bestalde, **Myriam Beltran de Herediak** Hies ekimenak banatutako intsignia ja-

so zuen hiesaren alde egindako lanagatik.

Kirol kontuei helduaz, kiroletxean jokatu zen pala txapelketako finala dator kit gogora. Bertan, **Rodolfo Rico** eta **Juanma Martinez** ermuarrak izan ziren irabazleak. **Edorta Antxia** eta **Gorka Madinabeitia** atxabaltarrak fin jokatu zuten arren, txapelak Ermua aldera egin zien ihes. Atxabaltarrak, finalera ehuneko ehunean azaldu izan balira...

Coprecik ere zapatuan urteroko batzar orokorra burutu zuen Zaraia zineman. Bertan, besteak-beste, **Javier Garcia** hautatu zuten Copreciko lehendakari.

Urkuluko krosean parte hartu zuten 74 lagunek ere egun zoragarria izan zuten takarraren egiteko. Iker Sanz saria arrasatear batek eskuratu zuen, **Fernando Nogales**ek hain zuzen.

Batean eta bestean jaiak atejoka dabiltzala esaten aritu naiz, asteburuan Atxabaltan bertan **Euskararen eguna** ospatuko dela gogorarazi gabe. Ostiralean bertan **Urbeltzen** dantzaldiarekin emango zaio hasiera euskararen jaiari. Zapatuan, berriz, txalapartariak, gazta eta sagardo dastaketa, babajana, Trepí eta Arawaken kontzertua... euskararen jaia ospatzeko nahi adina gauza aurkituko ditugu kalean. Asteburua borobiltzeko, domekan kuadrila majua elkartuko da Ojala Zelain. Ala?

Liburutegiko txokoa

Liburu berrien zerrenda:

0 urtetik aurrera:

- ¿Qué vuela? / Alain Crozon
- El cuento del señor pato / Juanvi Sánchez
- Edu, el pequeño lobo / Grégoire Solotareff
- No confundas / Hervé Tullet

6 urtetik aurrera:

- Joanaren erregin aulkia / Patxi Zubizarreta
- Ostiraletako opila / Patxi Zubizarreta
- Mila eskolara doa / Teresa Durán
- Ibiltzeko era bat asmatu zuen gizona / Xabier P. Docampo

Docampo

- Tukana; krokodiloa; Kangurua / Gaia Volpicelli

8 urtetik aurrera:

- Usoa, hegan etorritako neskatoa / Patxi Zubizarreta
- Midasen eraztuna / Patxi Zubizarreta

10 urtetik aurrera:

- Amets uhinak / Mariasun Landa
- El señor de los bonsáis / Manuel Vázquez Montalbán

12 urtetik aurrera:

- Benetako lagun en aterbea / Pako Aristi

- ¿Dónde has estado, Robert? / Hans Magnus Enzensberger

- El gol imposible / Enrique Sánchez

14 urtetik aurrera:

- Días de Reyes Magos / Emilio Pascual
- El café de los filósofos muertos / K. Nora; Vittorio

Hösle

- La cabina mágica / Norton Juster

Helduak:

- Berandu da gelditzeko / Unai Iturriaga
- Agirre zaharraren kartzelaldi berriak / Koldo

Izagirre

- Las afueras de Dios / Antonio Gala
- Nosotras que no somos como las demás / Lucía

Etxebarria

- ¿Qué me quieres, amor? / Manuel Rivas

- El mágico aprendiz / Luis Landero

- Por siempre mía / Mary Higgins Clark

- Las historias de Marta y Fernando / Gustavo

Martín Garzo

Joseba Lopez de Armentia

MAIATZA

14

egukotxa

KULTUR ERROTA

Urbeltzekin dantza ganbara
izango da oraingoan kultur errota-ko ekitaldiaren barruan. Dantza talde honen ikuskizuna gaueko 10,30etan udaletxe zaharrean izango da.

ASANBLADA GAZTETXEAN

Tabernaria/k aukeratzeko asanblada. Arratsaldeko 7etan Gaztetxean izango da.

15

zapatua

EUSKARAREN EGUNA

Egitarau berezia prestatu du Lora-mendi Euskara Elkartek.

KORUETAKO ELIZAREN INAUGURAZIOA

Arratsaldeko 8,30etan Koruetako elizaren inaugurazioa izango da.

LOURDESERA PEREGRINAZIOA

Urtero bezala, aurten ere, Parrokiak Lourdesera peregrinazioa antolatu du. Egun bakarrekoa edo bi egunekoa izan daiteke.

ARRASATE MUSIKALEKO KONTZERTUA

Amaia antzokian arratsaldeko 7,30etan izango da.

16

domeka

OTALA ZELAIKO EGUNA

Ikus egitarau berezian egun hone-tarako antolatutako ekintzak.

19

eguztena

ELKARRIREN TERTULIA

“Eraikikasi” proiektuaren 1. atalaren “zer da bake prozesu bat erraztea?” aurkeztu eta eztabaidatuko da, Maixus Rekalde Tailer nazionalako kidearen eskutik. Arratsaldeko 7,30etan udaletxe zaharreko aretoan.

“ATE IREKIAK” ETA BILERA INFORMATIBOA ALMENEN

Almen Ikastolak DBHko azkenengo urteko ikasle eta gurasoentzako informaziorako honako ekintzak antolatu ditu: “ate irekiak” arratsaldeko 4,30etan eta bilera informatiboa 6etan, Almenen. Gaia: Batxilergo eta Heziketa Zikloak, Hezibideko Proiektu Berrian.

20

eguna

“ATE IREKIAK” ETA BILERA INFORMATIBOA ARRASATEKO IKASTOLETAN

San Frantzisko Xabier eta San Viator ikastolek DBHko azkenengo urteko ikasle eta gurasoentzako informaziorako honako ekintzak antolatu ditu: “ate irekiak” arratsaldeko 4,30etan eta bilera informatiboa 6etan, San Viatorren. Gaia: Batxilergo eta Heziketa Zikloak, Hezibideko Proiektu Berrian.

22

zapatua

EH TALDE POLITIKOAREN AURKEZPENA

EH talde politikoak, datorren ekaineko hauteskunderi begira, aurkezpena egingo du goizeko 11etan, udaletxeko ganbaran.

28

egukotxa

KONTZERTUA

Tapia eta Leturiak kontzertua eskainiko dute gauean udaletxe zaharrean.

Aldi bi
943 71 20 02

ITURGINTZA
J.J
Jose Jabier Inure
URA, GASA ETA KALEFAZIOA
Tfnoa: 943 79 07 34
943 79 31 87

CONSUM EROSKI
Orain arrandegi eta okindegi, zatoz!
Mitarte kalea z/g 943 79 92 11
ARETXABALETA

MEZA ORDUEN ALDAKETA:

Bitoriano Aranburu abadea, abuzturarte kanpoan dela eta, meza batzuk kendu eta beste batzuk orduz aldatu dira.

• **Kendu diren herriko mezak:**

- Mojetan, zapatuetako arratsaldeko 6,30etakoa.

- Mojetan, astelehenetako goizeko 8etakoa. Honen ordez hitzaren liturjia egongo da.

• **Aldatu diren auzoetako mezak:**

- Domeketako mezak zapatu arratsaldetara pasatu dira:

Maiatzean:	Arientzan, 7etan.
	Arkarazon, 8etan.
Ekainean	Korueta, 7etan.
	Mendiolan, 8etan.
Uztailean	Larrinon, 7etan.
	Arkarazon, 8etan.
Abuztuan ez da mezarik izango auzoetan.	

GORRIÑAREN BIDETIK

Datorren maiatzaren 29rako Gorriña IV. memoriale antolatu du Murrukixok. Iaz bezala proba oinez eta korrikan egiteko aukera izango da. Aizkorrrira joan-etorria egitera animatzen zaretenontzat goizeko 7etan izango da irteera udaletxe zaharretik.

MURRUKIXOKO OHARRA

Murrukixo M.T.ko batzordeak, helbidea aldatu duten bazkideei, horren berri ematera lehenbailehen pasa daitezela Murrukixoko txokotik eskatzen die. Lokaletik martizenetan 7,30etatik aurrera pasa daiteke edo bestela 943 79 93 74 telefono zenbakira deitu.



BEHARREZKO TELEFONOAK

Aretxabaleta

- Almen 943 71 49 07
- Aretxagazeta 943 79 86 21
- Basotxo 943 77 09 81
- Euskalategia 943 79 21 68
- Gizarte-Laguntzailea 943 79 10 00
- Hezibide Elkarte 934 79 31 32
- Industrialdea 943 79 62 80
- Institutua 943 79 79 00
- Kiroletxea 943 79 64 61
- Kultur-Etxea 943 79 01 05
- Kurtzebarri Eskola 943 79 00 49
- Kurtzebarri B.H.I. 943 79 57 40
- Liburutegia 943 79 10 00
- Loramendi E.E. 943 77 09 70
- Ludoteka 943 79 05 81
- Murrukixo M.E. 943 79 93 74
- Musika Eskola 943 79 36 50
- Ortzadar 943 79 01 84
- Osasun zentroa 943 79 74 58
- Otorora 943 71 24 06
- Parrokia (Bulegoa) 943 79 18 42
- Pausoka Haur-Esk. 943 77 03 77
- Postetxea 943 79 28 31
- Santa Rita Ikastetxea 943 79 17 00
- Saretxo 943 71 26 56
- Taxi Geltokia 943 79 22 33
- Udal Bulegoak 943 79 10 00
- Udaltzaingoa 943 79 10 52
- Urats Gain 943 79 99 11

Udaltzaingoa

- Arrasate 943 79 14 39
- Bergara 943 77 91 06
- Eskoriatza 943 71 44 07
- Oñati 943 78 04 11

Larrialdiak

- SOS Deiak 112
- Eskualde-Ospitalea (Arrasate) 943 03 53 00
- Ertzaintza 943 79 71 99
- Gurutze-Gorria 943 76 55 76
- Larrialdiak 943 46 11 11
- Suhiltzaileak (Oñati) 943 78 28 00

Garraioak

- Pesa 902 10 12 10
- Renfe (Gasteiz) 945 23 20 20
- Renfe (Zumarraga) 943 72 15 15

Auzoetako elizen inguruko erreportajeak




Hurrengo bi asteetako ostiraleko emisioetan auzo ezberdinetako elizak

erakutsiko dizkigute Atxabalta telebistan. Ostiral honetan, hilak 14, Izurietako eliza izango da Atxabalta ezagutzen programan agertuko dena. Eliza hau, Gabonetan inauguratu zen hainbat konponketa egin

ostean. Martzelino Ugalde auzotarraren eskutik bertako sekretu guztiak ezagutuko ditugu.

Hurrengo ostiralean, berriz, Koruetako Santiago elizari tokatuko zaio txanda. Hau ere, konpondu eta txukundu ostean, San Isidro egunean inauguratuko da. Beraz, telebista bidez ere herriko kultura ezagutze-ko aukera ezin hobea izango dugu.

	MARTIZENA	EGUAKOTXA
20:00	ALBISTEAK Atxabaltako albisteak Gai orokorra Eguraldia	ALBISTEAK Atxabaltako albisteak Gai orokorra Eguraldia
20:20	KIROLAK	AGENDA
20:30		ATXABALTA EZAGUTZEN



Jaiotzez bergararra, ofizioz harotza, gaur egun Aretxabaletan bizi da Jose Javier Azkarate. Ofizioa familiatik datorkio, aita eta aitona ere harotzak baitziren. Bergaran, jaioterrian du lan-tokia eta beste bi atxabaltarrekin batera lanean dihardu bertan.

• Nola ipini zenuen Azkarate haroztegia?

Aita eta aitona ere harotzak ziren, beraz, familiatik datorkit ofizioa.

• Zenbatek lan egiten duzue Azkarate haroztegian?

Hiru lagunek. Beste biak atxabaltarrak

“Aitona eta aita ere harotzak ziren”

dira.

• Ofizio bat ikasiz gero, gaur egun samurra da lan bat bilatzea?

Momentuak egoten dira baina nik uste dut orain momentu onean gaudela.

• Bergararra izanik, nola etorri zinen Aretxabaletara bizitzera?

Emaztea hemengoa da eta.

• Zein da politagoa Bergara ala Aretxabaleta?

Politagoa ez dakit, baina gustokoagoa Bergara dut. Aretxabaleta ere herri polita da.

• Zelako herria da Aretxabaleta?

Herri jatorra da.

• Seme-alabarik?

Bi seme, 10 eta 5 urtekoak.

• Mutikoak hezitzea ala harotz lana da samurragoa?

Harotz lana, nik uste dut.

• Zure afizioak?

Irakurtzea, bidaiatzea...

• Zer irakurtzen duzu?

Gehienbat aldizkariak eta egunkaria.

• Nora bidaiatzea gustatuko litzaizuke?

Leku askotara, Kanadara adibidez.

• Pertsona batengan zer da gehien baloratzen duzuna?

Leialtasuna.

• Edateko garagardoa ala konbinatua?

Ardoa eta konbinatua.

• Mendia ala itsasoa?

Mendia.

• Dantzan egitea ala ikustea?

Ikustea, baina animatuta banago dantzan ere egiten dut.

• Zein da bete ez zaizun ametsa?

Londresera joatea adibidez.

• Zein erropa ez zenuke inoiz jantziko?

Smokin bat.

• Jantzkerak asko esan nahi du pertsona bategan?

Asko ez dakit baina zerbait bai.

• Egunkaria, irratia ala telebista?

Hirurak, baina irratia gehienbat.

• Etxean zein lan egiten duzu?

Afaria gertatu, umeak gobernatu...

• Erosketak egiteko denda haundiak ala txikiak?

Ertainak.

• Lagunekin noiz elkartzen zara?

Gutxitan, ez daukat denbora gehiegi eta. Zapatu goiz edo arratsaldetan.

• Eguneko momenturik onena?

Afalostea.

KOMIKIA

BALITAKUK (Hikaz berbetan)



Mikel Arroiabe

Aretxagazeta



**Oso ondo egin behar dira
autoak, bost urterako bermea
eman ahal izateko**

“3+2 Excellent 5 urteko Bermea” programa berriari esker, Nissanek zure ibilgailuaren ohiko bermea 3 urtetik 5 urtera zabaltzeko aukera eskaintzen dizu orain.

Kosto urri baten truke, bost urtean zehar Nissanen bermeaz gozatu ahal izango duzu, baldin eta edozein ezusteko izaten baduzu.

Ikusten duzu. Nissanen sinestuta gaude autoak ondo egiten ditugula. Gainerako guztiak urteak kentzen saiatzen diren bitartean, guk hartu egiten ditugu.



Gidatu eta gozatu



ALDIBI AUTOAK, S.A.

ZIGARROLA, 1 - TEL.: 943 71 20 02 - 20500 ARRASATE

centro hogar MUEBLES



a, eme...interiores

sukaldeak



Sofa
leku

GRUPO
M
Amuebladora
Mondragonesa

C/ Zigarrola, 1 pab. 6-10 • C/ Garibai, 9 • 20.500 ARRASATE
Tel. 943 79 15 03 / 943 77 14 92 • Faxe 943 79 14 89